

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL KONTSEILUA 2021eko ABENDUAREN 13ko OHIKO BILKURAREN AKTA

Bertaratuak:

Beatriz Artolazabal andrea, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua eta Kontseiluko presidentea.

Paul Ortega jauna, eLankidetzeta - Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria.

Zuriñe Elordi andrea, Emakunde ordezkatzuz.

Nerea Urien Azpitarte andrea, osasun-alorraren eskumeneko saila ordezkatzuz.

Juan Antonio Fernandez jauna eta Iker Atxa jauna, kanpo-ekintzaren alorreko eskumeneko saila ordezkatzuz.

Ainhoa Campo andrea, Arabako Foru Aldundia ordezkatzuz.

Ignacio Rodríguez jauna, Bizkaiko Foru Aldundia ordezkatzuz.

Juan Manuel Balerdi jauna, Euskal Fondoa ordezkatzuz.

Leixuri Arrizabalaga andrea, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen, Berdintasunaren eta Herritarren Partaidetzaren Batzordeko presidentea.

Milagros Domínguez andrea, Natalia Rodriguez andrea, Mónica González andrea, Josu Urrutia jauna, Eneko Gerrikabeitia jauna, Iñaki Orube jauna, Jesús Ochoa jauna eta Olga García Martínez andrea, Euskadiko GGKEen Koordinakundea ordezkatzuz.

Carlos Askunze jauna, Igone Revilla andrea, Alberto Cereijo jauna, Javier Arellano jauna eta Elsa Fuente andrea, garapenerako lankidetzaren beste euskal gizarte-eragile batzuk ordezkatzuz.

Noemí de la Fuente andrea, Kontseiluko idazkaria, hitzarekin baina botorik gabe.

Gainera, presidenteak gonbidaturik, honako hauek bertaratu dira:

Ana Rojo andrea, eLankidetzaren Zerbitzu Juridikoko kidea, gai-zerrendako 5. punturako.

Alazne Camiña, eLankidetzako koordinazio teknikoaren zerbitzuko arduraduna.

Ezin etorria adierazi dutenak:

Sofía Marroquín andrea, Euskadiko GGKEen Koordinakundeko presidentea eta Kontseiluko presidenteordea.

Marian Olabarrieta andrea, gizarte-ongizatearen eta gizarte zerbitzuen alorraren eskumeneko saila ordezkatzuz.

Begoña Pedrosa andrea, hezkuntza-arloko sail eskuduna ordezkatzuz.

Amaia Barredo andrea, ingurumen-alorraren eskumeneko saila ordezkatzuz.

Hernando Lacalle jauna, ogasun-alorraren eskumeneko saila ordezkatzuz.

Jone Miren Fernández andrea, nekazaritza-alorraren eskumeneko saila ordezkatzuz.

Fernando San Martín jauna, Gipuzkoako Foru Aldundia ordezkatzuz.

Ernesto Sainz jauna, EUDEL ordezkatzuz.

Iñigo Eguren jauna, Euskadiko GGKEen Koordinakundea ordezkatzuz.

Víctor Manuel Rodríguez jauna, garapenerako lankidetzaren beste euskal gizarte-eragile batzuk ordezkatzuz.

Tokia: eLankidetzako egoitza, eta birtuala Zoom bidez.

Eguna eta ordua: 2021eko abenduaren 13a, 11:30 h

Bilkura 11:45ean hasi da, presidentearen agurrarekin eta aurkezpen-txanda batekin. Jarraian, presidenteak proposatu du Batzorde Iraunkorrak erabakitako gai-zerrendako 8. puntua, aurreko bilkuraren akta onartu eta berehala aztertzea, Joan Fernandez ezin delako bilkura amaitu arte geratu, agenda-arazoak tarteko. Parte-hartzaileek ez dute inolako eragozpenik jarri, eta horrenbestez, bilkuraren gai-zerrenda honela geratu da:

1. Aurreko bilkuraren akta onartzea
2. 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programaren eta Eragile Anitzeko Foroaren aurkezpena
3. Legea egiteko prozesuaren gaineko informazioa
4. 2018-2021 Garapenerako Lankidetzaren IV. Gida Planaren ebaluazio-prozesuaren gaineko informazioa
5. Barne-erregelamenduaren aldaketaren gaineko informazioa
6. Erakundearteko ekimenei buruzko informazioa
7. AUZO(LAN)KIDEEN aurrerapenari buruzko informazioa
8. Garapenerako politiken koherentziarako lantaldearen aurrerapenen gaineko informazioa
9. Galde-eskeak

1. AURREKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA

Inork ez du inolako oharrik egin, eta bertaratuek akta aho batez onartu dute.

2. 2030 AGENDAREN LEHENTASUNEN EUSKAL PROGRAMAREN ETA ERAGILE ANITZEKO FOROAREN AURKEZPENA

Presidenteak gogora ekarri du 2021eko ekainaren 29an Gobernu Kontseiluak 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programa onartu zuela, eta Jonan Fernandez Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren idazki nagusiari hitza eman dio, aurkeztu dezan, idazkaritza hori XII. legegintzaldian sortu zelarik lehendakariari gai horretan aholku emateko¹. Jonan Fernandezek gogora ekarri du aurreko legegintzaldian, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bultzatutako Euskadi Basque Country 2030 Agenda aitzindaria eta erreferentziala izan zela nazioartean, 2030 Agendaren lokalizazioan. Une honetan, aurreko legegintzaldian landutako gida eta tresnak berrikusten ari dira. Eta honako dokumentu hauek aurkeztu ditu: *2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programa eta Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Eragile Anitzeko Foroaren egitura, lehentasunak eta laneko lehen agenda*². Horrez gain, 2030 Agenda bizikidetzarako eta etorkizunerako kontratu sozial berri baten oinarria izan daitekeela adierazi du. Nabarmendu duenez, eLankidetzari lagundu diote zazpi proiektu

¹ Esparru exekutibo propiorik gabeko idazkaritza bat da, sail eta erakundeen arteko dinamizazioa eta koordinazioa bideratzeko, txostenak egiteko eta esperientzia pilotuak bultzatzeko eginkizuna duena.

² Bi dokumentuak hemen daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/2030-agenda/web01-a2lehetr/eu/>

esanguratsuen eta planteatutako konpromiso traktoreen lankidetzaren kanpordimentsioa garatzeko lanetan.

Jesús Ochoak oso garrantzitsutzat jo du lankidetzaren 2030 Agendaren garapenetik gertu egotea, toki-dimentsioak globalari begiratu behar diolako Agendak zentzua galdu ez dezan. Eta garapenerako politiken koherentzia 2030 Agendarekin nola uztartzen den galdetu du. Jonan Fernandezek erantzun duenez, 26. orrialdean ezarri da, helburuei buruzko atalean, garapenerako politiken koherentzia sailarteko lanerako eta erakundearteko lankidetzarako helburuetako bat dela. Eta horretarako, eLankidetzaren kolaborazioa izango dutela.

Javier Arellanok 2030 Agenda lokalizatzeko ahalegina goraiatu du, bereziki arazo global handiei heldu beharra agerian geratu den testuinguru batean. Eta 2030 Agendaren aldeko apustu hori lankidetzaren aurrekontuaren mugatze handi batekin nola uztartzen den galdetu du. Jonan Fernandezek erantzun du 2030 Agendak eta garapenerako politiken koherentziak ahalbidetzen dutela horri heltzeko konpromisoa sail guztietara zabaltzea, eta, horrekin batera, garapenerako laguntza ofizial gisa konputagarriak diren aurrekontu-konpromisoak ere bai. Beatriz Artolazabalek, eLankidetzako presidentea den heinean, testuinguru konplexu batean milioi bat euroko igoera izan dela ekarri du gogora. Jonan Fernandezek erantsi du Euskadi izan dela COVAX-AMC txertaketa globaleko mekanismoari ekarpen bat egin dion lehen Gobernu ez-estatala.

Elsa Fuentesek galdetu du gizarteak nola parte hartuko duen gobernantza-lantaldean, eta hirugarren sektoretik ekarpenak egiteko aukera izango ote den. Jonan Fernandezek erantzun du ezinezkoa dela beste eragile batzuk modu puntual zein iraunkorrean gonbidatzea, baina, zehazki, talde honek erantzuten diola erakundearteko koordinazio-eremu bat edukitzeko premiari.

Elsa Fuentesek adierazi du interesgarri ikusten duela begirada eta koordinazio horretan lagungarri izan litezkeen organo mistoak edukitzea, eta Open Government Partnership-aren eremuan elkarlaneko gobernantza horretan aurrera egiteko egiten ari den lana aipatu du. Jonan Fernandezek erantzun dio Sareen Sarearekin alde biko bilera bat izan zela, eta bertan, foroak lehendik dagoena bikoizteko asmorik ez duela azaldu zela, beste kontseilu batzuetan egiten ari direna foro honetara ekartzea baizik, baldin eta funtzionatzen duen beste instantzia bat badago.

Beatriz Artolazabalek Jonan Fernandezi eskerrak eman dizkio parte hartzeagatik, eta Fernandez jauna bilkuratik atera da.

3. LEGEA EGITEKO PROZESUAREN GAINEKO INFORMAZIOA

Presidenteak adierazi du azaroaren 15ean formalki hasi zela lege-aurreproiektua egiteko prozedura alde aurretik onartzeko aginduarekin batera, eta prozedurari buruzko informazio guztia eskuragarri dagoela eta Legesarean eguneratzen joango dela. Erantsi duenez, azaroaren 17an hasiera eman zitzaion alde aurreko kontsulta publikoaren izapideari, eta herritarrek abenduaren 16ra arteko epea izango dute lege hau bidezkoa eta egokia den edo ez adierazteko, eta Kontseiluko ordezkari guztiak parte hartzera animatu ditu.

Paul Ortigari hitza eman dio, eta hark adierazi du abenduaren 1ean amaitu zela lege-aurreproiektua idazteko lana, eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren zerbitzu juridikoari bidali zitzaioa, kontrastatu zezan, eta, ondoren, txosten juridikoa

eman zezan. Aurreikuspenen arabera, urte-hasieran aldeztatik onartzeko agindua onartzeko da, entzunaldiaren, informazio publikoaren eta txostenen izapideei hasiera emango diena. Ondoren, honako erakunde hauei eman beharko die lege-aurreproiektuaren berri, ordena honetan: (i) Toki Gobernuen Kontseilua, (ii) Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea, (iii) Kontrol Ekonomikoko Bulegoa eta (iv) Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa. Behin txosten guztiak jaso eta memoria laburra osatu ondoren, jasotako ekarpenak eta horiek txertatu edo ez txertatzeko arrazoiak barne, Gobernu Kontseiluari helaraziko zaio, onartu dezan eta Legebiltzarrari bidali diezaion.

Erantsi duenez, behin Sailaren zerbitzu juridikoak emandako txosten juridikoa jaso ondoren, aurreproiektua Kontseiluari aurkeztuko zaio, ondoren, ohiko bilkura batean, nahitaezko txostena emateko aukera izan dezan.

Iñaki Orubek galdetu du idatzitako dokumentua erakundearen eskura dagoen iraileko oinarrizko dokumentuaren antzekoa ote den, eta lege-aurreproiektuari ekarpenak egiteko aukerarik ba ote dagoen.

Paul Ortegak erantzun du egungo zirriborroak oinarrizko dokumentuaren ideia nagusiak jasotzen dituela, baina modu artikulatuan eta hirugarren hiru hilekoan jasotako ekarpenak gehituta, Kontseiluarekin eta beste organo batzuekin zenbait kontraste-bilkura egin ostean jasotakoak. Erantsi duenez, aldeztatik onartzeko aginduaren ostean zirriborroa partekatuko da, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluari eta dagozkion gainerako aholku-organoei txostenak eskatzeko prozedura formala hasiko da. Horrez gain, entzunaldi publikoaren prozeduraren bitartez ere izango da ekarpenak egiteko aukera.

4. 2018-2021 GARAPENERAKO LANKIDETZAREN IV. GIDA PLANAREN EBALUAZIO-PROZESUAREN GAINEKO INFORMAZIOA

Presidenteak gogora ekarri duenez, 2018ko uztailaren 24an Gobernu Kontseiluak 2018-2021 Garapenerako Lankidetzaren IV. Gida Plana onartu zuen, eta horren harira jakitera eman du haren ebaluazioa egiten ari dela; jarraian, Kontseiluko kideak gonbidatu ditu azaroaren amaieran bidalitako inkestan parte hartzera, horretarako epea abenduaren 15ean, asteazkena, amaituko dela gogora ekarriz.

Paul Ortegak aditzera eman duenez, IV. Gida Planaren iraunaldia urte-amaieran amaituko bada ere, Kontseilu Errektoreak, azaroaren 16ko bilkuran, ontzat ikusi zuen lege berria onartu ondoren gehienez sei hilabetez luzatzea, kontuan hartuta lege-aurreproiektuaren zirriborroak ezarritako agindu batzuek etorkizuneko plangintzak baldintzatuko dituztela; horrez gain, 2018-2021 aldiaren ebaluazioa egitea planteatu zen, doikuntza eta hobekuntzak planteatzeko informazio kontrastatua edukitzeko eta 2022-2023 aldirako lehentasunak zentratzeko helburuarekin. Erantsi duenez, planaren luzapenak ekimen berrietan sakontzeko aukera emango du.

Alberto Cereijok galdetu du luzapena noiz arte luzatuko den. Beatriz Artolazabalek erantzun du hori legea onartzeko epearen mendean egongo dela. Eta, aurreikuspenen arabera, legea Legebiltzarrera 2022an iritsiko dela. Horrez gain, luzapenak 6 hilabete iraungo duela erantsi du, legea onartu ondoren.

5. BARNE-ERREGELAMENDUAREN ALDAKETAREN GAINKO INFORMAZIOA

Presidenteak adierazi du, Kontseilu hau arautzen duen irailaren 16ko 158/2008 Dekretuaren 5.6. artikulua aurreikusten duenez, 2016ko urriaren 26an Kontseiluaren Osoko Bilkurak onartu zuela une honetan indarrean dagoen barne-erregelamendua, eta gai-zerrendarekin batera bidali zela. Eta Kontseiluko idazkariari hitza eman dio, hura aldatu beharri buruzko informazioa eman dezan.



REGLAMENTO
INTERNO DEL CVCD.

Erregelamendua labur-labur aurkeztu ondoren, Noemí de la Fuentek egin beharko liratekeen zenbait aldaketa eman ditu aditzera:

- 2021eko ekainaren bilkuran adostutako nahitaezko txostenak egiteko sistema jasotzea.
- Euskadiko GGKEen Koordinakundeko kide ez diren gizarte-eragileak hautatzeko sistema jasotzea, Dekretuan jasota ez dagoena.
- Batzordetan ez ezik, lantaldetan ere funtzionatzeko aukera jasotzea (lantaldeak malguagoak dira, titular edo ordezkioak ez diren pertsonen parte-hartzean ahalbidetzeaz gain, osoko bilkuraren osaera zehatza mantentzeko betebeharririk ezartzen ez dutelako).

Eta, Batzorde Iraunkorren adostu zenez, urtarrilaren 31ra arteko epe bat irekitzea proposatu du, Kontseiluko kideen ustez erregelamenduan aldatu beharko liratekeen edo arautu beharko liratekeen alderdi berrien gaineko ekarpenak bidaltzeko. Erantsi duenez, jasotako ekarpenak Batzorde Iraunkorren aztertuko dira, eta osoko bilkurak onartu beharko duen proposamen bat egingo da.

Presidenteak erantsi du gizarte-eragileak hautatzeko edo batzordetan funtzionatzeko sistema jasotzeko 158/2008 Dekretua aldatzeak ez duela zentzurik une honetan, legea aldatzeko prozesuan gaudelako, eta dekretua ondoren berrikusi beharko delako, xedapen berrietara doitzeko.

6. ERAKUNDEARTEKO EKIMENEI BURUZKOKO INFORMAZIOA

Presidenteak azaldu duenez, azken urteetan Euskadiko hiru administrazio-mailetako erakundeak ahalegin handiak egiten ari dira baterako ekimenak koordinatzeko, eta Paul Ortigari eta Juanma Balerdi Euskal Fondoko zuzendariari hitza eman die, abian dauden erakundearteko ekimenen gaineko informazio eguneratua eman dezaten.

Paul Ortigak informazioa eman du 2018an abian jarri zen [Euskal Lankidetzaren Publikoaren Atariaren](#) eta orain artean egindako hobekuntzen inguruan (bilaketa anizkoitzak, datu-deskargak, etab.), baita une honetan egiten ari diren inguruan ere: urteko laburpena, eta, bidezko bada, ebaluazio-dokumentuen txertaketa, besteak beste.).

Jesús Ochoak adierazi du Koordinakundean faltan botatzen dutela atarian adieraztea erakunde bakoitzaren aurrekontutik lankidetzara bideratzen den ehunekoak. Eta kalkulu hori nola egin behar den eztabaidatzeko prest egongo liratekeela. Horrez gain, gainerako udalak txertatzea garrantzitsua litzatekeela iruditzen zaio.

Jarraian, Juanma Balerdik aurkeztu ditu uraren erakundearteko programaren lehen fasearen (2018-2021) ondorio eta ikaskuntza nagusiak (fase horretako lankidetzaren tekniko eta triangeluarreko osagaiaren sistematizazio-dokumentua partekatu da). Eta zera azpimarratu du, sistematizazioan azpiegitura-osagaia aztertu ez bada ere, osagai hori ez dela txikia, kontuan hartzen badugu El Salvadorren 5.000 familiari baino gehiagori ura emateko baliagarria izan dela.



Sistematización

Agua_Informe Final



Sistematización

Agua_Resumen Ejec

Iñaki Orubek galdetu du GKEei eta urari buruzko legeak programan nola eragiten ari diren. Juanma Balerdik erantzun du programa alkatetzekin lantzen ari dela, baina, bereziki, uraren agintaritzaren nazionalarekin. Eta, Nazioarteko Lankidetzarako El Salvadorreko Agentziarekin eta alor horretako ministerioarekin, diplomazia-ekintza bat egiten ari dela. Udal-kontrapartidako funtsei dagokienez kezkatuta dagoela ere adierazi du.

Ez da galdera gehiagorik izan, eta, puntu hau itxi ondoren, Beatriz Artolazabal Kontseiluko presidentek bilkuratik irten egin behar izan du. Kontseiluko idazkariak proposatu du Paul Ortegak bilkura amaitu arte zuzentzea, Sofía Marroquín lehendakariordea ez dagoela kontuan hartuta. Bertaratuek aho batez onartu dute hori.

7. AUZO(LAN)KIDEEN AURRERAPENARI BURUZKO INFORMAZIOA

Paul Ortegak gogora ekarri du 2018-2021 Garapenerako Lankidetzaren IV. Gida Planean ekimen esanguratsuen multzo bat ezarri dela, plan horrekin bultzatu nahi diren ikuspegiak indartu nahi dituztenak, lan egiteko modu berriak sortuz, elkarriketari garrantzi handiagoa emanez, eta eragileen gaitasunak hobeto aprobetxatzeko aukera sustatuz. Eta bakoitzean egindako aurrerapenen berri eman du:

- AUZO(LAN)KIDEAK BAKEAN: gatazken eraldaketa eta bakegintza Ekimen hau Kolonbiako Mahaiarekin bateratu zen. Oinarri partekatuen akordio bat ezarri zen, hiru lehentasunekin: (i) adiskidetzaren; (ii) borrokalari ohiak gizarteratzea, eta (iii) landa-garapen jasangarri eta bidezkoa sustatzea. Caucaoko Iparraldean lehen proiektu partekatu bat gauzatzea erabaki zen, eta, horren bitartez, erakunde indigena, afrokolonbiar eta nekazariez osatutako Etniarteko eta Kulturarteko Kontseilua bultzatzen ari gara. 2022an, Egia argitzeko, Bizikidetzarako eta Berriz ez gertatzeko Batzordearen txostenaren zabalkundea sustatzea izango da erronketako bat, 2022ko ekainaren 28an batzorde horrek txosten hori eman ondoren.
- AUZO(LAN)KIDEAK EKONOMIAN: eredu ekonomiko solidarioa Lantalde bat jarri genuen martxan gai horretan espezializatutako hainbat GGKEren, ekonomia solidarioko erakunde eta sareen, institutu eta unibertsitate-zentronen, ekonomia sozialeko sare eta enpresaren eta garapen agentziaren eta Eusko Jaurlaritzaren parte-hartzearekin. Pandemiarekin, taldearen biltzeko erritmoa galdu zen. 2021ean, REAS sarearen parte bat ekimen bultzatu ditugu (bata REAS sarearena, eta bestea MU Enpresagintzarena). REAS sareak Euskadiko eta Hegoko eragileen arteko lankidetzaren eta gaitasunak indartzeko abian jarritako ekimen bat bultzatzen ari gara.

- AUZO(LAN)KIDEAK GIZA ESKUBIDEEN ALDE: enpresa eta giza eskubideak. Paul Ortégak proposatu du gai horri aurrerago heltzea, beste bilkura batean, non Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzako sailburuorde Josean Rodríguez Ranz eta Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasuneko Monika Hernando egon litezkeen, gai hori bultzatzen ari direla aintzat hartuta.
- AUZO(LAN)KIDEAK EROSTERAKOAN (erosketa publiko arduratsua) eta AUZO(LAN)KIDEAK MUNDUAN (koordinazioa nazioartekotzearen eremuan) ezin izan dira inplementatu.
- AUZO(LAN)KIDEAK ELKARREKIN: uraren erakundearteko programa. Gai-zerrendako 6. puntuan aztertu da.
- AUZO(LAN)KIDEAK KOMUNIKAZIOAN. 2020an pandemiari aurre egiteko erakunde publikoek Euskadiko GGKEen Koordinakundearekin batera martxan jarri genuen komunikazio-kanpaina azpimarratu behar da. 2022an, (H)ABIAN 2030 estrategia abian jarri zeneko V. urteurrena dela-eta, gizarte-eraldaketaren hezkuntzaren gaineko jardunaldi bat programatu da Euskadiko esperientziak ez ezik, Europako beste lurralde batzuetako esperientziak ere partekatzeke, baita aurten gauzatutako lehen oinarri-lerroan eta estrategian aurreikusitako aldaketak neurtzeko adierazle multzoa aurkezteko ere.
- AUZO(LAN)KIDEAK HEZKUNTZAN Aurrera egin da hezkuntza-maila formal desberdinetarako hainbat proposamenen garapenean: (i) lehen hezkuntza: Euskadiko eta Malawiko eskolak lotuz, teknologia berrien bitartez inklusioa eta kulturartekotasuna lantzeko proposamena; (ii) bigarren hezkuntza: Afrikari buruzko hezkuntza-materialak. Gainera, Hezkuntzaren aldeko Mundu Kanpaina bultzatu dugu, Euskadin zein Beninen, Burkina Fason eta Senegalen, lau herrialdeetako hezkuntza-komunitateak harremanetan jarritz.
- AUZO(LAN)KIDEAK TEKNOLOGIAN Afrikan Euskadiko hainbat eragilerekin energia berriztagarriei buruzko gaiak bultzatzeko aukera aztertzen ari gara, Jonan Fernandezek aurkeztutako Ekiola ekimenaren esparruan.
- AUZO(LAN)KIDEAK INGURUMENEAN. Ingurumen-eremuan Ihoberekin elkarlanean aritzeko bideak bilatzen ari gara. INADES-Formation Afrikako sarearekin batera, intereseko 50 esperientziaren hautaketa, idazkuntza eta grabaketa bultzatu ditugu klima-aldaketara egokitzeko arloan, baita landa-gobernantza inklusiboaren arloan ere, Afrikako 11 herrialdetan. Aurreikuspenen arabera, 2022an ekimen horri jarraipena emango zaio, ekimen horietako batzuk eskalatuz eta erreplikatur. Horrez gain, Senegalen BC3-Basque Centre for Climate Change ekimenari bultzatzen ari zaio kostaldean klima-aldaketaren aurka joan litezkeen ondorioak identifikatzeko eta aldaketa horiek arindu eta horietara egokitzeko neurriak zehazteko.

IV. Gida Planaren ebaluazio-prozesuan ekimen horiek guztiak banan-banan aztertuko dira, bakoitzaren aurrerapen, zailtasun eta egokitasunak eta egin litezkeen hobekuntza edo norabide-aldaketak baloratzeko.

Azalpena amaiturik, inork ez du galdera edo komentariarik egin.

8. GARAPENERAKO POLITIKEN KOHERENTZIARAKO LANTALDEAREN AURRERAPENEN GAINKO INFORMAZIOA

Paul Ortégak jakinarazi duenez, azaroaren 29an egin zen garapenerako politiken koherentziarako lantaldearen azken bilera, eta Naomí de la Fuenteri hitza eman dio bileran hartutako erabaki nagusien berri eman dezan:

1. Lantalde bat sortu da, urtariletik maiatzera bitarte, lehen txostenean erabilitako tresna berrikusteko eta sinplifikatzen ahalegintzeko ardua hartu dezan.
2. Hezkuntza-eremurako koherentziari buruzko lehen txostenaren ondorioei dagokienez, Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzan aztertzen ari dira zer egin daitekeen ondorioak Sailburuordetzaren edo Sailaren mailara igotzeko.
3. Hurrengo txostenerako gaiei dagokienez, Bultzatu 2050 hiri-agenda aztertzeko aukerak kalkulatu ziren. Informazio gehiago partekatzea erabaki zen, eta aukera hori eta beste aukera batzuk hurrengo bilkura batean aztertzea, urte-hasieran.
4. 2022rako, hiru mailatan prestakuntzako guneak planteatu beharraz hitz egin zen: (i) taldearen baitan; (ii) goi-kargudunen mailan; eta (iii) maila orokorrean, IVAP/HAEEn bitartez, administrazioetako langileentzat, eta Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak bultzatzen duen 2030 Agendaren gaineko prestakuntzarekin koordinatuta.

Halaber, erantsi du, lantalde horren barne-erregelamenduak ezartzen duenez, haren osaeran bi aldaketa egitea proposatu dela: Iñobek Antonio Castejón izendatu du Alex Boto ordeztu dezan, eta Koordinakundeak proposatu du Carolina del Ríori baja ematea, balioetan oinarritutako prestakuntzari buruzko txostenaren jarraipenean parte hartu zuena, eta, haren ordeztu, Irene Molero sartzea.

Ez da komentariarik izan, eta proposatutako aldaketak berretsi dira, taldea honela osatuta geratu delarik:



Listado%20de%20p
ersonas%20pertene

9. GALDE-ESKEAK

Noemí de la Fuentek, Kontseiluko idazkari gisa, 2022an bilera presentzialetara itzultzea proposatu du.

GGKEen Koordinakundeko ordezkariak presentzialtasunaren alde egin dute, bilkura birtualetan leinu-komunikazioa, konfiantza eta erantzuteko gaitasuna galtzen direlako. Eta honako hauek eskatu dituzte: (i) egutegi bat ezartzea, agenda erreserbatzeko behar adinako aurrerapenarekin; (ii) ahal dela, abenduan bilkurarik ez deitzea; (iii) urtean bilkura bat Bilbon eta beste bat Donostian egiteko aukera baloratzea. Azken puntu horri dagokionez, Paul Ortégak adierazi du presidentea eta erakundeetako ordezkari nagusiak Gasteizen daudela, baina eskaera aintzat hartuko dela. Noemí de la Fuentek ondo ikusten du lau bileretako datak aldeztu aurretik ezartzea, baina ohartarazi duenez, legearen kasuan bezalaxe nahitaezko txostenak egin behar direnean, ohiz kanpoko bilkurak egin beharko dira, aldeztu aurretik ezarritako datekin bat ez badatoz.

Igone Revillak ere ikusten du bilkura birtualek malgutasun handiagoa eskaintzen dutela, baina interakzioa galtzen dela ere uste du.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez gero, bilera amaitutzat eman da 13:17an.

NOEMÍ DE LA FUENTE PEREDA

**GARAPENERAKO LANKIDETZAREN
EUSKAL KONTSEILUKO IDAZKARIA**

BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ

**GARAPENERAKO LANKIDETZAREN
EUSKAL KONTSEILUKO
PRESIDENTEA**